- En caso de superar los 5 días festivos generados, se disfrutarán obligatoriamente en bloques semanales de 3, 4 o 5 días dependiendo de la modalidad de horario de la persona. Se disfrutarán, en su caso, en dos bloques semanales, pudiéndose disfrutar sueltos o acumulados, a elección de la persona, los días restantes.

Las solicitudes de disfrute de los festivos laborales de carácter retribuido y no recuperable, habrán de cursarse conforme a las siguientes normas:

- Los bloques semanales de 3, 4 o 5 días, han de solicitarse con un mínimo de 3 meses de antelación.
- Los días sueltos, acumulables o no, se podrán solicitar con un mínimo de 15 días de antelación.

Ordaindutako eta berreskuratzeko ez diren jaiegunak noiz hartu, langileak erabakiko du, produkzioaren premiak kontuan hartuta, eta artikulu honetan ezarritako sarrera- eta lehentasun-hurrenkerako parametroen barruan.

Metatutako egun horiek, hartu ordez, ordaintzen badira, honako hau izango da tratamendua:

- 1- a) eta c) kasuetan zor-egunak aparteko lantenbora arrunt bihurtzearen ondorioz sortzen dira; hori horrela, egun arrunten prezioan ordainduko dira, hori noiz gertatzen den kontuan hartu gabe.
- 2- b) kasuan, urtearen barruan hartu ezin izan diren zor-egunak (horren ondorioz, pertsonak urteko 228 egun baino gehiago lan egin du), ordaintzeko edo hurrengo urtean hartzeko, II. mailako aparteko eguntzat hartuko dira; hau da, egun bakoitzen balioa 2koa izango da.

Jaiegunen eta abarren konpentsazioaren ondoriozko egunak sortzen diren urtearen barruan hartzea izango da arau orokorra. Egun horiek hartzeko epea sortu eta hurrengo urteko urtarrilaren lehen hamabostaldira arte luzatuko da.

Lanaldien arteko atsedenaldia –Hitzarmenaren 21. artikuluan jasoa- 3 ordu edo gehiago gutxitzen bada eta, hala eta guztiz ere, zerbitzuaren ezinbesteko premien ondorioz, pertsonak biharamunean lan egin behar badu, egun horretan lan egindako orduak, hartzeko edo kobratzeko ondorioetarako bakarrik, II. mailako aparteko ordutzat hartuko dira, baina ez dira kontuan hartuko aparteko orduak zenbatzeko.

Las fechas de disfrute de los festivos laborales de carácter retribuido y no recuperable, serán a elección de la persona, siempre a salvo las necesidades de producción y dentro de los parámetros de orden de entrada y prelación establecidos en el presente artículo.

Para el supuesto de que en vez de disfrutar esos días acumulados se pagaran los mismos el tratamiento sería el siguiente:

- 2- En los casos a) y c) donde los días de deuda son el resultado de la conversión a ordinario de un tiempo de trabajo extraordinario, su abono se hará al precio de día ordinario, sea cual sea el momento en el que el mismo tenga lugar.
- 2- En el caso b), los días adeudados que no se hayan podido disfrutar dentro del año y, en consecuencia, la persona haya trabajado más de los 228 días del año, tendrán la consideración, para su pago o disfrute en el año siguiente, de extraordinarios de nivel II, es decir, cada día valdrá por 2.

Como norma general se efectuará la libranza de los días de disfrute por compensación de festivo, etc., dentro del año en que se producen. Se amplia el plazo para efectuar dicha libranza hasta la primera quincena del mes de enero del siguiente año al que se generan.

Cuando se haya producido una reducción del descanso entre jornadas a que hace referencia el artículo 21 del Convenio igual o superior a 3 horas y, a pesar de ello, por necesidades ineludibles del servicio la persona deba trabajar al día siguiente, las horas trabajadas en este día tendrán el carácter, a los solos efectos del disfrute o cobro, de horas extraordinarias del nivel II, aunque no se tendrán en cuenta para el cómputo de horas extraordinarias.

## **21. ARTIKULUA: LANALDI-MUGEN SALBUESPENA**

Eguneko edo asteko lanaldiaren mugak gainditu ahal izango dira ekitaldien emanaldi edo grabazioen ondoriozko zerbitzuaren ezinbesteko premiengatik, baldin eta ETBk ez baditu horien ordutegiak erabakitzan.

Aurreko egunetan ordu gutxien pilatu duten pertsonak bideratuko dira ezohiko lan horietara.

## **ART.21: EXCEPCIÓN A LOS LÍMITES DE JORNADA**

Los límites anteriores de jornada diaria o semanal podrán ser sobrepasados por necesidades ineludibles del servicio derivadas de retransmisiones o grabaciones de actos cuyos horarios no dependan de la voluntad de ETB.

Para estos trabajos excepcionales se procurará asignar a aquellas personas menos afectadas por la acumulación de horas en los días anteriores.

## **IV. KAPITULUA: LANGILEEN ANTOLAKUNTZA**

### **CAPÍTULO IV: ORGANIZACIÓN DEL PERSONAL**

## 22. ARTIKULUA: LANGILEAK

Langileak zehaztea EiTB Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluaren eskumena da (Eusko Legebiltzarraren maiztaren 20ko 5/1982 Legearen 8.c artikula).

## 23. ARTIKULUA: LANBIDE-SAILKAPENA

Hitzarmen honek eragindako lan-kontratudun langileek dagokien lan-prestazioaren araberako kategoria izango dute, 1989ko Hitzarmen Kolektiboaren VI. eranskinean kategoria bakoitzarentzat ezarritako eginkizun eta baldintzakin bat etorri, eta Hitzarmen honen gainerako xedapenen arabera.

Zuzendaritzak kategoria bakoitzari ezarritako eginkizunak berrikusi ahalko ditu, teknologia eta ekipamendu berrien ezarpenak eragindako antolaketako aldaketetara egokitzeko.

Lanpostuaren balorazioa Empresa Batzordearekin adostu ondoren, aldaketak Administrazio Kontseiluari aurkeztuko zaizkio, dagokien profila ezartzeko.

Teknologia eta ekipamenduak berritzeak ekarritako aldaketei elkarlanean aritzeko jarrerarekin aurre egitea adostu dute bi aldeek.

Zuzendaritzak langile finkoentzako prestakuntza-plana diseinatzeko konpromisoa hartzen du, enpresan beste lanpostu batzuetarako birgaitu daitezen bermatzeko, betiere Balorazio Batzordearen aurrean egiaztatzen badute eginkizun horietan aritzeko behar besteko gaitasuna dutela.

Sobera dauden langileak zerbitzuak betetzen dituzten lan-zentroan bertan birkokatuko dira. Hori ezinezkoa bada, beste lan-zentro batzuetan egingo da hori.

## ART. 22: PLANTILLA

La determinación de la plantilla es competencia del Consejo de Administración del Ente Público EiTB (Art. 8.c. Ley 5/1982 de 20 de mayo del Parlamento Vasco).

## ART. 23: CLASIFICACIÓN PROFESIONAL

El personal laboral afectado por el presente Convenio ostentará la categoría correspondiente a su prestación laboral de acuerdo con las funciones y requisitos establecidos para cada categoría en el Anexo VI del Convenio Colectivo de 1.989, y en concordancia con el resto de disposiciones de este Convenio.

La Dirección podrá revisar las funciones establecidas para cada categoría, con el fin de adaptarlas a los cambios organizativos por la implantación de nuevas tecnologías y equipamientos.

Previo acuerdo con el Comité de Empresa en la valoración del puesto, las modificaciones se someterán al Consejo de Administración para el establecimiento del perfil correspondiente.

Ambas partes acuerdan afrontar los cambios que la innovación tecnológica y de equipamientos conlleven con actitud de total colaboración.

La Dirección se compromete a diseñar un plan de formación, dirigido al personal fijo, con el fin de asegurar su reciclaje en la Empresa para otros puestos de trabajo, siempre que se acredite, ante la Comisión de Valoración, la capacidad necesaria para desempeñar dichas funciones.

La reubicación de excedentes se realizará en el propio centro de trabajo donde la persona presta sus servicios. En el caso de que esto no fuera posible, se llevará a cabo en otros centros de trabajo.

## 24. ARTIKULUA: BURUZAGITZA-KARGUAK

Buruzagitzak karguak izendatzeko eta baliogabetzko eskumena du Zuzendaritzak, eta hurrengo artikuluan aipatutako langileak eta orain dagozkien karguak alde batera utzita, horiek ez daude Hitzarmen honetan jasota.

Langile batek buruzagitzako kargua bere borondatez edo Zuzendaritzaren erabakiz uzten badu, jatorrizko kategoriara itzuliko da, hurrengo artikuluan aipatutako langileak izan ezik, bertan ezarritakoaren arabera zuzenduko baitira horiek.

## 25. ARTIKULUA: DESAGERTU BEHARREKO BURUZAGITZAKO KATEGORIAK

1988/12/31ra arte indarrean ziren buruzagitzako kategoriak, Hitzarmen honen IV. eranskinean jasotakoak, desagertu beharreko kategoriatzat jotzen dira, eta egun horretan horiek finkatuta zituzten langileek baino ez dituzte atxikiko; halaber, eranskin horretan soldataren kontzeptuan ageri diren hileko eta urteko lansariak bermatuta izango dituzte, Hitzarmen Kolektiboan oro har aplikatzen diren urteko eguneratzeak barne.

Desagertu beharreko lan-kategoriei zegozkien eginkizunak betetzeari utzi dioten edo etorkizunean utzik dioten langileei erantzukizun bereko edo txikiagoko beste batzuk agindu ahal izango zaizkie, baina duten prestakuntza teoriko eta praktikoarekin bat datozenak betiere, eta esandako ordainsari horiek ere atxikiko dituzte.

Ordainsari horiek etorkizunean betetzen dituzten lanpostu berriei legozkiekeen erantzukizun bereziko plusak hartuko dituzte, baldin eta, horien ordainsari-maila, Hitzarmen honen araberakoa, eta plus horien zenbatekoa

## ART. 24: CARGOS DE JEFATURA

Los cargos de jefatura son de libre nombramiento y revocación por la Dirección y, excepto para las personas y en los respectivos cargos actuales a que se refiere el artículo siguiente, no estarán recogidos por el presente Convenio.

Cuando una persona cesa en el cargo de jefatura por propia voluntad o por decisión de la Dirección volverá a su categoría de origen, excepción hecha de las personas a que hace referencia el artículo siguiente que se regirán por lo en él establecido.

## ART. 25: CATEGORÍAS DE JEFATURAS A EXTINGUIR

Las categorías de jefatura vigentes hasta el 31/12/88 recogidas en el Anexo IV de este Convenio se declaran categorías a extinguir y se conservarán únicamente a título personal por las personas que a esta fecha las tuvieran consolidadas, garantizándoseles las retribuciones mensuales y anuales que figuran en dicho anexo en concepto de sueldo, con las actualizaciones anuales que con carácter general se apliquen en el Convenio Colectivo.

A las personas que hayan dejado o en el futuro dejaran de desempeñar las funciones que hasta ahora correspondían a las categorías laborales a extinguir, se les podrán encomendar otras de igual o menor responsabilidad, pero en todo caso acordes con su preparación teórica y práctica, manteniéndoseles en todo caso las retribuciones citadas.

Dichas retribuciones absorberán los pluses de responsabilidad especial que pudiera corresponder añadir en el futuro a los nuevos puestos que pudieran ocupar, siempre que sumado al nivel retributivo de los mismos de

gehitura, bermatutako ordainsariak gainditzen ez badira. Horiek txikiagoak badira, batura horrekiko aldea jasoko dute, eginkizun berriak betetzen dituzten denboran, erantzukizun bereziaren kontzeptuan.

Antzinatasun-osagarria eta, hala badagokio, gaueko lanaren plusa edo aparteko orduak jasotzeko, eta pertsona horientzako berariazko tratamendu gisa, Hitzarmen honetako maila handieneko lan-kategoriarako ezarritako zenbatekoak jasoko dituzte kontzeptu horiengatik.

## 26. ARTIKULUA: PROBALDIA

1. Langile lan-kontratudun finkoek honako probaldi hau gainditu beharko dute: 6 hilabeteko goi- eta erdi-mailako tituludunek eta homologatuek, eta 3 hilabeteko gainerako langileek; laguntzaileek, telefonia eta harrerako langileek eta erregidoreek, baina, hilabetekoa izango dute.
2. Oro har, hilabete lehenago jakinarazi behar da enpresan baja emateko. Probaldia salbuetsita dago, horren barruan ez dagoela aurretik jakinarazteko eperik. Lanerako ezintasun iragankorrik eten egiten du frogaldiaren zenbaketa, baina ezin du inola ere gainditu pertsona hori kontratatu den aldia.
3. Aldi baterako lan-kontratuetan, urtebetetik beherakoak badira, frogaldia eta aurretik jakinarazteko aldia erdira murriztuko dira.
4. Aldi horretan, langileak eta enpresak lan-harremana bertan behera uzteko eskubidea izango dute, aldez aurretik abisatu beharrik gabe eta alderdietako edozeinek inolako kalte-ordinak ez duela jasoko aintzat hartuta, sortutako ordainsariak alde batera utzita.

acuerdo con este Convenio, más el importe de los mencionados pluses, no excedieran de las retribuciones garantizadas. Si éstas fueran inferiores, se percibiría la diferencia con la suma anterior, durante el tiempo que se ejercieran las nuevas funciones, en concepto de responsabilidad especial.

A efectos de la percepción del complemento de antigüedad y, en su caso, del plus de nocturnidad o de horas extraordinarias y como tratamiento específico para dichas personas, éstas percibirán por estos conceptos los importes establecidos para la categoría laboral máxima del presente Convenio.

## ART. 26: PERIODO DE PRUEBA

1. El personal contratado como fijo estará sometido a un período de prueba que será de 6 meses para los/as titulados/as superiores y medios u homologados y 3 meses para el resto del personal, salvo para ayudantes/as, auxiliares, personal de telefonía/recepción y regidores/as, que será de 1 mes.
2. Como norma general se establece un plazo de preaviso de un mes para causar baja en la Empresa. Se exceptúa el período de prueba en el cual no hace falta el plazo de preaviso. La incapacidad laboral transitoria suspende el cómputo del período de prueba, sin que en ningún caso se pueda sobrepasar el período para el cual había sido contratada.
3. Para los contratos temporales, inferiores a un año, el período de prueba y el de preaviso se reducirá a la mitad.
4. Durante este período tanto el/la trabajador/a como la Empresa podrán poner fin a la relación laboral sin necesidad de preaviso y sin que ninguna de las partes tenga derecho a indemnización alguna, salvo el percibo de las retribuciones devengadas

5. Langile lan-kontratudun finko batek, dagokion lehiaketa librea gainditu ondoren, ez badu frogaldia gainditzen, Enpresa Zuzendaritzak txostena bidaliko die langileen ordezkariei, bere iritziz hura zergatik ez duen behar bezala gainditu azaltzeko.
6. Frogaldia behar bezala gaindituta, langile finkoei aldi hori ondorio guztietarako zenbatuko zaie.
7. Hitzarmen honetan araututako prozeduraren bat erabiliz maila handiagoko kategoriara igarotzen diren langile finkoek frogaldia gainditu beharko dute; 26.1 artikuluan ezarritakoaren erdia izango da aldi hori.
- Aldi horretan, bi aldeek igoera eraginkortasunik gabe utzi ahal izango dute, eta dena delako langilea aurreko kategoria eta destinora itzuliko da.
5. En el caso de que una persona contratada fija no supere el período de prueba, habiendo superado el concurso libre correspondiente, la Dirección de la Empresa remitirá un informe a los/as representantes de los/as trabajadores/as de las causas por las que, a su juicio, no ha superado satisfactoriamente el mismo.
6. Superado satisfactoriamente el período de prueba, al personal fijo se le computará dicho período a todos los efectos.
7. El personal fijo que acceda a categoría superior por cualquiera de los procedimientos regulados en este Convenio, estará sometido a un período de prueba equivalente a la mitad del establecido en el artículo 26.1.
- Durante este período, ambas partes podrán dejar sin efectividad el ascenso, incorporándose la persona automáticamente a la anterior categoría y destino.

## 27. ARTIKULUA: ZUZENEKO IGOERA ETA SUSTAPENA

1. ETBko langile finkoek laneko sustapen profesionalerako eskubidea izango dute.
2. Sustapen hori errazteko, igoera zuzenean egin ahal izango da hurrengo atalean araututakoari jarraikiz.
3. Pertsona bat zuzenean igotzea proposamena ebaluatzea, Balorazio Batzorde bat eratuko da beti, honako hauez osatuta: zuzendari kudeatzailea, ETBko zuzendaria, bete beharreko plazaren arloko zuzendaria, beste arlo bateko zuzendaria, Giza Baliabideetako zuzendaria eta langileetako bat, Enpresa Batzordeak hautatuta. Batzorde horrek, informazioa bilduta eta, hala badagokio, egoki iritzitako azterketak eginda, postuz igotzea proposamenari buruzko iritzia emango du,

## ART. 27: ASCENSO DIRECTO Y PROMOCIÓN

1. El personal fijo de ETB tendrá derecho a la promoción profesional en el trabajo.
2. Con el fin de facilitar dicha promoción, el ascenso se podrá realizar de una manera directa de acuerdo con lo regulado en el apartado siguiente.
3. Para evaluar la propuesta de ascenso directo de una persona, se constituirá en cada caso una Comisión de Valoración constituida por el/la Directora/a Gerente, el/la Director/a de ETB, el/la Directora/a del área de la plaza a cubrir, el /la Directora/a de otra área, el/la Directora/a de Recursos Humanos y un/a miembro del personal elegido/a por el Comité de Empresa. Esta Comisión una vez recabada la información y, en su caso, realizadas las pruebas que estime oportunas, se

eta eginiko txostena Zuzendari Nagusiari helaraziko dio.

4. Esleitu edo hitzartutako kategoria ez badator bat pertsonak betetzen dituen zereginerikin, berriz sailkatzeko eskubidea izango du, bere kategoria benetan gauzatzen dituen eginkizunei egokitzeko, betiere ez bada beste pertsona bat ordezten ari; horrelakoetan, izan ere, eta hura lanera itzultzen denean, aurreko eginkizunetara itzuliko da, ordainsaria kasuan-kasuan betetzen duen eginkizunarena izatea alde batera utzita.
5. Hitzarmen honetan araututako barne-sustapena zuzentzen duen printzipioa aukera-berdintasuna ahalik eta gehien bermatzea da; horregatik, kategoriaz igotzea ez da inola ere automatikoki gertatuko denboraren igarotze hutsagatik.

Lanpostu batean 5 hilabete jarraian kategoria txikiagoko langile finko bat edo batzuk behin-behineko aritzen badira, plaza hori betetzeko lehiaketa deituko da automatikoki, Hitzarmen honetan aurreikusitako prozeduren bidez. Era berean, pertsona batek gaixorik dagoen edo eszendentzia lanpostu-erreserbadunean dagoen beste bat ordezten badu, eta horren ondorioz kategoria-maila handiagoko baten eginkizunak bete behar baditu egoera horretan dagoen denboran, horren iraupena edozein izanik ere, ez du eskuratutako ordezutako pertsonaren kategoria, nahiz eta, aurreko kasuan bezalaxe, dagozkion ordainsarien aldea jasotzen duen maila handiagoko eginkizun horietan aritu bitartean.

Langile finko batek kategoria-maila handiagoko lanpostu bat 5 hilabete jarraian behin-behinean betetzen badu, plaza hori betetzeko deialdia egingo dela

pronunciará sobre la propuesta de ascenso, elevando su informe a la Dirección General

4. En el supuesto de que la categoría asignada o pactada no concordara con los cometidos que la persona desempeñase, ésta tendrá el derecho a ser nuevamente clasificada para que su categoría sea acomodada a la realidad de sus funciones, salvo cuando está sustituyendo a otra persona, en cuyo caso, reincorporada ésta, volverá a realizar sus funciones anteriores, independientemente de que la retribución sea la de la función que desempeñe en cada caso.
5. Dado que el principio que rige la promoción interna regulada en este Convenio es el de garantizar al máximo posible la igualdad de oportunidades, el ascenso de categoría no se producirá en ningún caso automáticamente por el mero transcurso del tiempo.

Cuando un puesto sea ocupado de forma interina durante 5 meses continuados por una o varias personas fijas de inferior categoría se convocará automáticamente mediante los procedimientos previstos en el presente Convenio la cobertura de dicha plaza. De la misma forma, si una persona sustituye a otra ausente por enfermedad, excedencia con reserva de puesto y como consecuencia de ello debe desempeñar funciones de categoría superior durante el período que se mantenga esa situación, sea cual sea su duración, no adquirirá la categoría de la sustituida, con independencia, al igual que en el caso anterior, de que perciba la diferencia de retribuciones que le correspondan durante el tiempo que desempeñe dichas funciones superiores.

Cuando en el párrafo anterior se hace referencia a la convocatoria de cobertura de la plaza en el caso de que una persona fijo ocupe de forma interina durante 5

adierazten da aurreko lerrokadan, horren bidez, asmoa da aukera-berdintasuna eta gardentasuna bultzatzea postua lortzeko orduan, eta, horrela, denbora igarotze hutsak ez diezaiola pertsona zehatz batimesede egin. Asmo hori ezin da hutsaldu 5 hilabeteko aldi hori bete aurretik etenez eta, gutxi gorabehera laburra den aldiaren buruan, beste langile finko batek lanpostu hori berriz betez, nahi den helburuaren kontrakoa lortuko baitzen horrela, plaza hori, etenak egin arren, denbora luzean behin-behineko betetzea, alegia.

Ordeztutako pertsona ez bada enpresara itzultzen bertan ez egotea eragin zuten inguruabarrak amaituta, Hitzarmen honetan plaza hori betetzeko aurreikusitako prozedurak abian jarriko dira.

6. Pertsona bat ez da, dagokion lanbide-taldearen barruan, kategoriaz zuzenean igoko plaza huts bat dagoelako bakarrik; hori dela eta, horren erregulazioa ez da zuzenduko plaza hutsak betetzeari aplikatutakoaren arabera, artikulu honetan ezarritakoaren arabera baizik. Ez da zuzeneko igoera erabiliko plaza huts deklaratutako plazak, ezta sortu berriak ere, betetzeko, hurrengo atalean araututakoa izan ezik.
7. Nolanahi ere, buruzagitzako postuak bete behar dituzten pertsonak askatasunez eta bere kabuz izendatu ahalko ditu Zuzendaritza Nagusiak, eta erabakiaren berri emango dio Enpresa Batzordeari.

## 28. ARTIKULUA: PLAZAK BETETZEA

1. ETBn langile finkoak sartzeko, ezinbestekoa izango da Zuzendaritza Nagusiak,

meses continuados un puesto de superior categoría, lo que se pretende es propiciar la igualdad de oportunidades y la transparencia para acceder a un puesto, sin que el mero transcurso del tiempo pueda favorecer a una persona en concreto. Este espíritu no se puede desvirtuar interrumpiendo dicho periodo de 5 meses antes de alcanzarlo y tras un lapso de tiempo más o menos corto volver a ocupar el puesto por otro/a trabajador/a fijo/a, pues se estaría viciando el objetivo pretendido y se conseguiría otro bien distinto que' seria la ocupación interina durante largo tiempo, aunque con interrupciones.

Si la persona sustituida no se reincorporara a la Empresa al finalizar las circunstancias que dieron lugar a su ausencia, se procederá a poner en marcha los procedimientos previstos en el presente Convenio para la Cobertura de dicha plaza.

6. El ascenso directo de categoría de una persona dentro de su grupo profesional no se entenderá motivado exclusivamente por ó causante de la existencia de una vacante, por lo que su regulación no se regirá por lo aplicable a la cobertura de vacantes, sino por lo establecido en este artículo. No se utilizará el ascenso directo para cubrir plazas declaradas vacantes, o de nueva creación, salvo lo regulado en el apartado siguiente.
7. En cualquier caso, la Dirección General podrá designar libremente y por sí misma a las personas que hayan de ocupar puestos de jefatura, informando al Comité de Empresa de su decisión.

## ART. 28: PROVISIÓN DE PLAZAS

1. El ingreso en situación de personal fijo en ETB sólo podrá realizarse mediante las

Administrazio Kontseiluaren adostasunarekin, dagozion hauta-probak ezarri eta deitutakoak gainditzea.

2. Zuzendaritza Nagusiak, Administrazio Kontseiluaren adostasunarekin, sor daitezkeen lanpostu hutsen amortizazioaren nondik norakoak erabakiko ditu.

3. Lanpostu huts esango zaio Zuzendaritza Nagusiak hala izendatutakoari; hau da, ETB uzten duen langile finkoak edo enpresa barruko beste kokagune geografiko edo funtzional batera lekualdatu dutenak hutsik utzitako lanpostua.

ETBko langile finkoen behin betiko bajen ondorioz hutsik gelditzen diren plazak (heriotza, ezintasunak eta bestelakoak direla eta) plaza finkoen bidez beteko dira.

4. Administrazio Kontseiluak hutsik izendatutako lanpostuak edo sortu berri dituenak betetzeko, langile finkoz betetzekoak badira, aurreko artikuluko 7. atalean jasotako salbuespenarekin, hurrenkera honi jarraituko zaio:

a) Barruko fasea.

1. Borondatezko lekualdatzea.
2. Igoera-probak.
3. Nahitaezko lekualdatzea.

b) Lehiaketa librea.

correspondientes pruebas de admisión, establecidas y convocadas por la Dirección General, de acuerdo con el Consejo de Administración.

2. La Dirección General, de acuerdo con el Consejo de Administración, podrá decidir la amortización de las vacantes que se produzcan.

3. Se entenderá por vacante, cuando así se declare su existencia por la Dirección General, la plaza dejada libre por una persona fija de plantilla con motivo de abandonar ETB o de haber sido trasladada geográfica o funcionalmente dentro de la Empresa.

Aquellas plazas que queden vacantes por las bajas definitivas de trabajadores/as fijos/as de la plantilla de ETB (supuestos de fallecimiento, incapacidades y otros) serán cubiertas por plazas fijas.

4. La provisión de plazas de plantilla declaradas vacantes o de nueva creación aprobadas por el Consejo de Administración, que hayan de cubrirse con personal fijo, con la excepción recogida en el apartado 7. del artículo anterior, se llevará a efecto según este orden:

a) Fase interna.

1. Traslado voluntario.
2. Pruebas de ascenso.
3. Traslado forzoso.

b) Concurso libre.

## 29. ARTIKULUA: BORONDATEZKO LEKUALDATZEA

1. Enpresa lanpostu huts bat, edo sortu berriko bat, dagoela adierazita, Zuzendaritzak dagokion borondatezko lekualdaketen deialdia jakinaraziko du iragarki-taulan.

## ART. 29: TRASLADO VOLUNTARIO

1. Declarada por la Empresa la existencia de una vacante, o de una plaza de nueva creación, la Dirección hará pública en el tablón de anuncios la convocatoria del correspondiente traslado voluntario.

2. Deialdian honako hauek zehaztuko dira: lanpostu hutsaren kategoria, destinoa, eginkizunak, izangariei eskatutako baldintzak, bai eta, borondatezko lekualdatzea ebatzita, lanpostu hutsa amortizatzeko aukera dagoen ere; hori dela eta, azken horretan, ez ziren egingo ondorengo igoera-probak.
  3. Hamabost eguneko epea ezarriko da borondatezko lekualdatzerako lehiatu nahi duten langileen eskaerak onartzeko. Epe hori 30 egunekoa izango da deialdia ekainetik irailera arteko hiletan jakinarazten bada, betiere dudarik gabe ezin izan bazaie horren berri eman interesdun guztiei, horrela izan bada 15 eguneko epearri eutsiko baitzaio.
  4. Borondatezko lekualdatzerako izangaiet zer destinorako lehiatu nahi duten zehaztu beharko dute eskaeran; izan ere, balizko plaza huts horrek destinoa zentro batetik beste batera alda baitezake, lekualdatzearen ondorioz, eta kasu horretan ondoz ondoko lekualdaketa egongo dira, fase bakar batean ebatziko direnak.
  5. Lekualdaketa-deialdian parte ahal izango dute deialdiko kategoria bereko eta kategoria horretan eta destinoan urtebeteko antzinatasuna duten ETBko langile finkoek.
  6. Lekualdatze-lehiaketa ebatzeko, kontuan hartuko dira norberaren, familiares zein betetako eta bete nahi den lanpostuaren berezko baldintzak. Esleitu gabe deklaratuko da izangaiet bete beharreko plazaren baldintzak ez dituztela betetzen baderitzo 30.3 artikuluan aipatutako Balorazio Batzordeak. Nolanahi ere, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan lekualdatze-lehiaketak ebatzeko orduan:
- Lanpostuarekin lotutako ezagutza-
2. En la convocatoria se detallarán la categoría, destino, especificación de funciones del puesto de la vacante, los requisitos exigidos a los/as candidatos/as, así como la posibilidad de que sea amortizada la vacante una vez resuelto el traslado voluntario, por lo que en este caso no se llevarían a cabo las posteriores pruebas de ascenso.
  3. Se establecerá un plazo de 15 días para la admisión de solicitudes del personal que desee concurrir al traslado voluntario. Este plazo será de 30 días si la convocatoria se hace pública en los meses de Junio a Setiembre, salvo que se haya podido notificar la misma fehacientemente a todos/as los/as interesados/as, en cuyo caso se mantendrá el plazo de 15 días.
  4. Las personas candidatas al traslado voluntario deberán especificar en su solicitud, el o los destinos de la vacante a la que desean concursar, dado que la posible vacante como resultado del traslado puede cambiar su destino de un centro a otro, produciéndose sucesivos trasladados que se resolverán en una única fase.
  5. Podrá optar al traslado el personal fijo de ETB que ostente idéntica categoría laboral a la convocada y tenga un año de antigüedad en dicha categoría y en el destino
  6. El concurso de traslado se resolverá atendiendo a las circunstancias personales, familiares y a las propias del puesto de trabajo desempeñado y de aquél al que se opta. Podrá declararse desierto cuando la Comisión de Valoración mencionada en el artículo 30.3 estime que los/as candidatos/as no reúnen las exigencias de la plaza a cubrir. En todo caso, serán criterios a considerar para resolver los concursos de traslado los siguientes:

Nivel de conocimiento y titulación

maila eta titulazioa.

Baldintza profesionalak eta familiarrak.

Zerbitzuaren premien ondorioz, beste tokি batera nahitaez lekualdatua izatea aldez aurretik.

Kategoria eta destinoko antzinatasuna.

7. Balorazio Batzordeak txostena Zuzendaritza Nagusiari helaraziko dio. Azken horren ebazpenaren berri emango zaoi Enpresa Batzordeari.

relacionada con el puesto de trabajo.

Circunstancias profesionales y familiares.

Haber sido trasladado/a con anterioridad a otro punto geográfico, con carácter forzoso, por exigencias del servicio.

Antigüedad en categoría y destino.

7. La Comisión de Valoración elevará su informe a la Dirección General. De la resolución de ésta se dará traslado al Comité de Empresa.

## 30. ARTIKULUA: IGOERA-PROBAK

1. Borondatezko lekualdatzea ebatzitakoan eta lanpostu hutsa amortizatu ezean, igoera-probak egingo dira berehala, eta horretarako, Zuzendaritzak igoera-proben deialdia ezagutaraziko du iragarki-taulan.
2. Lanpostu hutsaren kategoria, destino, eginkizunak eta izangaien eskatutako baldintzak zehatztuko dira deialdian.

Igoera-proben kasuan, izangaien eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte, lanpostuko esperientzia izan ezik.

3. Hamabost eguneko epea ezarriko da igoera-probetarako lehiatu nahi duten langileen eskaerak onartzeko. Epe hori 30 egunekoia izango da deialdia ekainetik irailera arteko hiletan jakinarazten bada, interesdun guztiei dudarik gabe horren berri eman ahal izan bazaie izan ezik, horrela izan bada 15 eguneko epearri eutsiko baitzaio.
4. Aktiboan edo eszidentzian dauden ETBko langile finkoak aurkeztu ahal izango dira

## ART. 30: PRUEBAS DE ASCENSO

1. Una vez resuelto el traslado voluntario y en caso de no producirse amortización de vacante, se dará paso inmediatamente a las pruebas de ascenso, para lo cual la Dirección hará público en el tablón de anuncios la convocatoria de las correspondientes pruebas de ascenso.
2. En la convocatoria se detallarán la categoría, destino, especificación de funciones del puesto de la vacante y los requisitos exigidos a los/as candidatos/as.

En caso de pruebas de ascenso, las personas candidatas deberán reunir todos los requisitos exigidos, a excepción de la experiencia en el puesto.
3. Se establecerá un plazo de 15 días para la admisión de solicitudes del personal que desee concurrir a las pruebas de ascenso. Este plazo será de 30 días si la convocatoria se hace pública en los meses de Junio a Setiembre, salvo que se haya podido notificar la misma fehacientemente a todas las personas interesadas, en cuyo caso se mantendrá el plazo de 15 días.
4. Se podrá presentar a las pruebas de ascenso el personal fijo de ETB, en

igoera-probetara, bete beharreko plaza baino beheragoko kategoria batekoak badira eta beren kategorian urtebetetik gorako antzinatasuna badute.

5. Zuzendari Nagusiak, bere kabuz edo egoki deritzon pertsonari eskuordetuta, eta bete beharreko plazaren saileko zuzendariak proben edukia prestatuko dute.
6. Aurreko artikuluetan aipatutako Balorazio Batzordearen eskumena izango da igoera-probak eta eskatutako gainerako baldintzak administratzea eta baloratzea, eta txostena helaraziko dio Zuzendaritza Nagusiari probak egin eta hilabeteko epearen buruan. Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenaren berri emango zaio Enpresa Batzordeari.

### **31. ARTIKULUA: NAHITAEZKO LEKUALDATZEA**

Zuzendaritza Nagusiak pertsona bat mugikortasun geografiko edo funtzionalaren arabera nahitaez lekualdatzea erabaki ahal izango du, indarreko legerian ezarritakoari jarraikiz, plazak betetzeko aurreko prozedurak agortu ondoren, betiere.

### **32. ARTIKULUA: LEHIAKETA LIBREA**

Barne-sustapeneko aldietan bete ez diren lanpostu hutsak edo sortu berriko lanpostuak betetzeko erabiliko da lehiaketa librea, eta Erakunde Publikoan eta bere Sozietateetan sartzeko Arauen arabera arautuko da. Zuzendaritza Nagusiak ezarri ditu arau horiek, Administrazio Kontseiluarekin adostuta, eta 1989ko Hitzarmen Kolektiboaren V. eranskinean daude jasota.

situación de activo o de excedente, de categoría inferior a la de la vacante y que tenga una antigüedad en la propia de más de un año.

5. La Dirección General por sí o delegando en la persona que crea conveniente, junto al/la Director/a del departamento de la plaza a cubrir, elaborarán el contenido de las pruebas.
6. La administración y valoración de las pruebas de ascenso y de los demás requisitos exigidos será competencia de la Comisión de Valoración mencionada en los artículos anteriores, quien elevará su informe a la Dirección General en el plazo de un mes desde la realización de las pruebas. De la resolución de la Dirección General se dará traslado al Comité de Empresa.

### **ART. 31: TRASLADO FORZOSO**

El traslado forzoso de una persona en función de la movilidad geográfica o funcional podrá ser decidido por la Dirección General de acuerdo con lo establecido en la legislación vigente, siempre y cuando se hayan agotado los procedimientos anteriores de cobertura de plazas.

### **ART. 32: CONCURSO LIBRE**

El concurso libre se empleará para cubrir vacantes o plazas de nueva creación que no hayan sido cubiertas en las correspondientes fases de promoción interna y se regulará por las "Normas de Ingreso en la Plantilla del Ente Público y sus Sociedades" establecidas por la Dirección General de acuerdo con el Consejo de Administración y que aparecen recogidas en el Anexo V del Convenio Colectivo de 1989.

Lan-poltsa osatzeko edo lanpostu finkoak betetzeko prozesuetan parte hartzeko deialdi publikoak egitean, kontuan hartu beharko da legez agindutako ezinduentzako lanpostu-erreserva.

### **33. ARTIKULUA: BEHIN-BEHINEKO KONTRATUAK**

Langileen Estatutuaren 15.1.b) artikuluan ezarritakoaren babespean (maiatzaren 19ko 11/1994 Legearen osteko idazketa berriaren arabera), Hitzarmen hau sinatzen denean formalizatzen edo indarrean diren kontratuengen gehieneko iraupena aldatzea erabaki da, baldin eta horrelakoak egiten badira merkatuaren gorabeherak, zereginak pilatzeak edo gehiegizko eskaerek eraginda, zeinak legezko manu horretan eta abenduaren 29ko 2.546/94 Errege Dekretuan araututa dauden (produkzioaren gorabeherak eragindako behin-behineko kontratu).

Horrelako kontratuak gehienez hemezortzi hilabete iraungo dute bi urteko epean, horien erabilera justifikatuko duten arrazoia edo gorabeherak agertuko diren egunetik zenbatzen hasita.

Behin-behineko kontratazio hori ez da lanaldiaren % 50 baino gutxiagorako egingo, eta ehuneko hori osatzeko, obragatik egindako kontratu guztiak batuko dira, halakorik badago, ehunekoa txikiagoa izan daitekeela berariaz zehaztutako kategoriak alde batera utzita.

A los efectos de las convocatorias públicas a bolsa de trabajo o procesos para la cobertura de plazas fijas, se tendrá en cuenta la reserva establecida por ley para personas discapacitadas.

### **ART. 33: CONTRATOS EVENTUALES**

Al amparo de lo establecido en el art. 15.1.b) del Estatuto de los Trabajadores, en su nueva redacción tras la Ley 11/1994, de 19 de mayo, se acuerda modificar la duración máxima de los contratos que se formalicen, o se encuentren en vigor a la firma del presente Convenio, celebrados por circunstancias del mercado, acumulación de tareas o exceso de pedidos y regulados en el indicado precepto legal, así como en el Real Decreto 2.546/94, de 29 de diciembre (contrato eventual por circunstancias de la producción).

La duración máxima de estos contratos será de un total de dieciocho meses, en un período de dos años computándose el mismo a partir de la fecha en que se produzca la causa o circunstancia que justifique su utilización.

La contratación eventual no se hará por tiempo inferior al 50 % de la jornada, computándose a los efectos de este porcentaje la suma de los distintos contratos por obra si los hubiera, a excepción de las categorías en las que se especifique expresamente que el porcentaje pueda ser menor.

## **V. KAPITULUA: OSASUNA ETA SEGURTASUNA LANEAN**

### **CAPÍTULO V: SEGURIDAD Y SALUD EN EL TRABAJO**

## 34. ARTIKULUA: LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

1. Enpresaren zuzendaritzak eta langileek beren gain hartuko dituzte hitzarmen honetako berariazko xedapenek zehazten dituzten laneko segurtasunaren, prebentzioaren, osasunaren eta higienearen arloetako elkarrekiko eskubide eta erantzukizunak, baita Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/95 Legeak eta unean-unean indarrean dagoen legeria orokorrak ordezko edo osagarri gisa zehazten dituenak ere.

### 2. Prebentzioko ordezkariak:

2.1 Prebentzioko ordezkarien kopurua zehazteko, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/95 Legearen 35. artikuluan xedatutakoa beteko da, eta behar besteko gaikuntza duten enpresako langileen beraien artean aukeratu ahal izango dituzte langileen ordezkariek.

2.2 Honako hauek izan daitezke prebentzioko ordezkari: langileen ordezkari edo ordezkari sindikal izaera ez edukita ere, aurreko atalean ezarritakoari jarraikiz izendatutako pertsonak (34.2.1 art).

Prebentzioko ordezkariekin Legean aurreikusitako eginkizunak betetzeko erabiltzen duten denbora ordezkartz-eginkizunak egiteko denboratzat hartuko da, ordaindutako hileko orduen kreditua erabiltzeko. Kreditu hori Langileen Estatutuaren 68. artikuluko e) letran aurreikusita dago, eta bermeen arloko edukia aplikatuko zaie Prebentzioko Ordezkariei, langileen ordezkari diren aldetik.

Lan-zentro bakoitzean batzordeko kide bakoitzak eta lantokiko langileen ordezkari bakoitzak hilean ordu kopuru bat izango

## ART. 34: SEGURIDAD Y SALUD EN EL TRABAJO

1.- La Dirección de la Empresa y el personal asumirán los derechos y las responsabilidades recíprocas que, en materia de seguridad, prevención y salud e higiene en el trabajo, vengan determinados por la Ley 31/95 sobre Prevención de Riesgos Laborales y por las disposiciones específicas de este Convenio y supletoria y complementariamente por la legislación general vigente en cada momento.

### 2.-Los/as Delegados/as de Prevención:

2.1.A efectos de determinar el número de Delegados/as de Prevención, se estará a lo dispuesto en el artículo 35 de la Ley 31/95 sobre Prevención de Riesgos Laborales y podrán los/as representantes del personal designarlos/as entre el propio personal de la Empresa que reúna la cualificación necesaria.

2.2. Podrán ser delegados/as de prevención aquellas personas que, aunque no ostenten la condición de representantes del personal o delegados/as sindicales fueran designadas conforme a lo establecido en el apartado anterior (art. 34.2.1).

El tiempo utilizado por los/as Delegados/as de Prevención para el desempeño de las funciones previstas en la Ley será considerado como de ejercicio de funciones de representación a efectos de la utilización del crédito de horas mensuales retribuidas previsto en la letra e) del artículo 68 del ET, cuyo contenido en materia de garantías será de aplicación a los/as Delegados/as de Prevención en su condición de representantes de los/as trabajadores/as.

Dispondrán de un crédito de horas mensuales retribuidas cada uno/a de los/as miembros del comité o

du, ordainduta, ordezkartzako funtzioak betetzeko, mailaketa honen arabera:

delegados/as de personal en cada centro de trabajo, para el ejercicio de sus funciones de representación, de acuerdo con la siguiente escala:

LAN ZENTROA CENTRO DE TRABAJO	ORDAINDUTAKO ORDUAK HORAS RETRIBUIDAS
<b>100 langilera arte</b> Hasta 100 trabaj.	<b>15 ordu / hilean</b> – horas / mes
<b>101 langiletik 250era</b> De 101 a 250 trabaj.	<b>20 ordu / hilean</b> – horas / mes
<b>251 langiletik 500era</b> De 251 a 500 trabaj.	<b>30 ordu / hilean</b> – horas / mes
<b>501 langiletik 750 era</b> De 501 a 750 trabaj.	<b>35 ordu / hilean</b> – horas / mes
<b>751 langiletik gora</b> Más de 751 trabaj.	<b>40 ordu / hilean</b> – horas / mes

2.3 Laneko Prebentzioko ordezkariet honako eskumen eta ahalmen hauek izango dituzte, une bakotzean indarrean diren legezko xedapenetan egotzita daudenak alde batera utzi gabe:

1. Prebentzioko ordezkarien eskumenak:
    - a) Enpresako Zuzendaritzarekin elkarlanean aritza prebentzio-ekintza hobetzeko.
    - b) Langileek laneko arriskuak prebenitzeko legedia betearazten lagun dezaten sustatzea.
    - c) Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/95 Legearen 33. artikuluak adierazitako erabakiak hartu aurretik enpresaren aldetik kontsulta jasotzea.
    - d) Laneko arriskuak prebenitzeari buruzko araudia betetzen dela zaintza eta kontrolatzea.
  2. Esleitura dituzten eskumenak betez, honako hau egiteko ahalmena dute:
    - a) Teknikariei laguntza laneko ingurumenaren prebentzioaren delegados/as de personal en cada centro de trabajo, para el ejercicio de sus funciones de representación, de acuerdo con la siguiente escala:
- 2.3.Los/as Delegados/as de Prevención Laboral tendrán las siguientes competencias y facultades, sin perjuicio de las que estén atribuidas en las disposiciones legales vigentes en cada momento:
- 1.- Competencias de los/as Delegados/as de prevención:
    - a) Colaborar con la Dirección de la empresa en la mejora de la acción preventiva.
    - b) Promover y fomentar la cooperación del personal en la ejecución de la normativa sobre prevención de riesgos laborales
    - c) Ser consultados/as por la empresa, con carácter previo a su ejecución, acerca de las decisiones a que se refiere el artículo 33 de la Ley 31/95 sobre Prevención de Riesgos Laborales.
    - d) Ejercer una labor de vigilancia y control sobre el cumplimiento de la normativa de prevención de riesgos laborales.
  - 2.- En el ejercicio de las competencias que les son atribuidas, están facultados/as para:
    - a) Acompañar a los/as técnicos/as en las evaluaciones de carácter

ebaluazioetan, baita Lan eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaileei ere, lan-zentroetan, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzen den egiazatzeko, egiten dituzten bisita eta egiaztapenetan. Eta egoki iritzitako oharak egin ahalko dizkiete.

- preventivo del medio ambiente de trabajo, así como a los/as Inspectores/as de Trabajo y Seguridad Social en las visitas y verificaciones que realicen en los centros de trabajo para comprobar el cumplimiento de la normativa sobre prevención de riesgos laborales, pudiendo formular ante ellos/as las observaciones que estimen oportunas.
- b) Eginkizunak betetzeko behar duten lan-baldintzei buruzko informazioa eta dokumentazioa eskuratzea, legean aurreikusitako mugen barnean.
  - c) Enpresaren informazioa jasotzea, langileen osasunean eragindako kalteen inguru, enpresak horien berri izan ondoren; lanalditik kanko bada ere, gertaeren tokian ager daitezke segurtasun eta osasuneko batzordeko kideak, gertaera horien inguruabarren berri izateko.
  - d) Enpresako babes- eta prebentzio-jarduerez arduratzen diren pertsonen edo organo-en aldetik, baita langileen segurtasun eta osasunerako erakunde eskudunen aldetik ere, enpresak lortzen duen informazioa jasotzea.
  - e) Lantokietara bisitak egitea, lan-baldintzen egoeraren gaineko ikuskapen- eta kontrol-lana garatze aldera. Xede horretarako, lantokiko edozein eremutara iritsi ahalko dira, eta langileekin harremanetan jarri ahal izango dira lanaldiaren barruan, baina produkzio-prozesuaren garapen normala nahastu gabe.
  - f) Lortzea enpresak prebentzio-neurriak eta langileen

segurtasunaren eta osasunaren babes-mailak hobetzeko neurriak har ditzan; xede horretarako, proposamenak egin diezazkiekete, bai enpresari, bai Segurtasun eta Osasun Batzordeari, bertan horiek eztabaidatzeko.

- g) Langileak ordezkatzeko organoari jarduerak eteteko erabakia har dezan proposatzea; Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 21. artikuluaren 3. atalak aipatzen du erabaki hori.

para la mejora de los niveles de protección de la seguridad y la salud del personal, pudiendo a tal fin efectuar propuestas a la empresa, así como al Comité de Seguridad y Salud para su discusión en el mismo.

- g) Proponer al órgano de representación de los/as trabajadores/as la adopción del acuerdo de paralización de actividades a que se refiere el apartado 3 del artículo 21 de la Ley sobre Prevención de Riesgos Laborales.

### **3. Segurtasun eta Osasun Batzordea:**

- 3.1 Batzorde hori, batetik, prebentzio-ordezkarien, eta, bestetik, enpresak eta/edo haren ordezkarien osatuko dute; zenbat prebentzio-ordezkari, hainbat ordezkari izango ditu enpresak.
- 3.2 Segurtasun eta Osasun Batzordeak honako eskumen eta ahalmen hauek izango ditu, une bakoitzean indarrean diren legezko xedapenetan egotzita daudenak alde batera utzi gabe:

#### **1. Segurtasun eta Osasun Batzordearen eskumenak:**

